


MARTXOAREN 8A

2021ko

EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

**IZUAK GELDIARAZTEN DU,
ANARKOFEMINISMOAK
MOBILITZATZEN DU**



DÍA INTERNACIONAL DA MULLER-TRABALLADORA

DÍA INTERNACIONAL DE LA MUJER TRABAJADORA

DÍA INTERNACIONAL DE LA DONA TRABALLADORA

DÍA INTERNACIONAL DE LA MUJER TRABAJADORA



Lanaren Konfederakunde Nagusia

rojoynegro.info

www.cgt-lkn.org

@CGT

Manolito Rastamán...2021

IZUAK GELDIARAZTEN DU, ANARCOFEMINISMOAK MOBILIZATZEN DU!

Berriz ere, patronala, klase politikoa eta sindikatu bertikalak langilegoaren aurka joateko batu dira, emakumeok jasaten ditugun desparekotasunak are gehiago ikusteaz bihurtuz eta isilaraziz.

Ezinbestekoak ez diren zerbitzuen pixkanakako berrabiarazteak, ordaindutako baimen berreskurragarriaren iruzurrak, covid-19az kutsatzeko arriskua sahiesteko neurri prebentibo gisa baino kontziliazio neurri moduan telelana aitortu izanak, kontziliatzeko ordaindutako baimenik ez izateak, lantokietan dauden babes neurri eskasek, eta kasu askotan etxebizitza galtzea eragin duten lanpostuen galerek, feminizatutako sektoreak gogorrago kolpatu dituzte eta ondorioz emakumeak eta guraso bakarreko familiak; emakumeak eta langile klasekoak izanagatik jasaten ditugun arrakala guztien hazkundeari aurre egin behar izan diogu.

Pandemiaz baliatuta estatuak guretzako neurri errepresiboagoak prestatu ditu. Gure etxeen barruan espetxeratu gaituzten bitartean, zaintza lan guztiak gure gain hartzeak suposatzen duen gainkargara zigortuz eta gure bizitzak geldiarazten dituzten bitartean, telelanaren bidez sistema kapitalista martxan mantentzera behartzen gaituzte. Konkistatutako gure eskubideak urratzen dituzte (ERTEak ezarri, ordutegiaren erabateko malgutasuna...), pixkanaka haren xedea lortzen ari den patronalaren betiko nahiari jarraipena ematen diote: denbora tarte laburrerako langileak eskuragarri izatea, eskubiderik eta protestarik gabe.

Jasaten ditugun desparekotasunak izendatzea eta ikusgarri egitea ezinbestekoa da mundu aske eta justu bateranzko eraldaketarantz joateko kontzientzia garatu ahal izateko.

Berriz ere, emakumeak klase politikoa konpondu nahi izan ez dituen gabeziak betetzeko autorganizatu gara. Guk geuk, hedabideek eta estatuak ahazten dituzten pertsona babesgabeak, haien borroeroekin itxiak izan diren emakumeak eta ezkutuko ekonomiaren parte diren sektore feminizatu handiei laguntzeko sostengu sareak sortu ditugu.

Emakumeon hezkuntza feminista eta autoantolaketa gure tresna nagusienak dira.

Anarkofeministak gara, mundu berri bat nahi dugu, baina ez normalitate berri hau.

Horregatik, iraultzarako deia egiten dugu, elkarrekin, arnasa egitea galerazten digun eta gure indar feminista deuseztea bilatzen duen gizarte matxista eta heteropatriarkala suntsitu nahi dugu.

Berdintasuna, utopia baten ordean emakume askeak eraikitzeko borrokatzen ari garen errealitatea izango den mundu batengatik.